

Euskara Zerbitzua

Konstituzio plaza 2 - Tel. 943483750 - Faxa 943483765 - udala_euskara@donostia.org - www.euskaraz.net - www.donostia.org
20003 Donostia

TOKIKO GOBERNU BATZARRARI:

2014ko urtarrilaren 30ean argitaratu zuen Donostiako Udalak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, irabazi asmorik gabeko entitate edo elkarteei laguntza emateko 2014 urteko diru laguntzen deialdia. Deialdi horretan jasotzen dira Euskara Zerbitzuak Donostiako Euskararen Plan Orokorra (2011-2015) garatzeko edota osatzeko 2014. urtean jarduerak eta egitasmoak antolatzen dituzten irabazi asmorik gabeko elkarteentzako diru laguntzak emateko oinarri espezifikoak.

2014. urteko deialdian bi atal berezitu dira: bata, auzoetako plan integralak, 24.392 euroekin hornitua, eta bestea, jarduera zehatzak, 13.133 euroekin hornitua.

Kasu honetan, auzoetako plan integralei zuzendutako proposamena bakarrik egingo da. Oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskariak aztertu eta diru laguntzen banaketa egiteko erabilitako irizpideak kontuan harturik, irabazi asmorik gabeko elkarten emakidak zehaztu dira, oinarri orokorretako III. atalean zehaztatutako prozedurari jarraiki. Horrela, izapidegileak eskaerak baloratu ondoren, Balorazio Batzardeak dagozkion txostenak egin ditu. Dokumentu honi erantsita doaz balorazio irizpideak eta entitate bakoitzari emandako puntuaketa. Espedientearen eta Balorazio Batzardearen txostenen argitan izapidegileak behin-behineko proposamenak egin ditu.

Oinarri orokorretako 9. artikuluan zehaztutakoarekin bat, behin-behineko ebazpen proposamena egin ondoren interesatuei jakinarazi eta 10 eguneko epea eman zaie egoki iritzitako alegazioak aurkezteko.

Ez da inolako alegaziorik jaso.

Hala, Gobernu Batzarrak eskuordetzan emandako aginpidea erabili eta hauxe da Kultura eta Euskarako zinegotzi ordezkari honek Gobernu Batzarrari proposatutako,

ERABAKIA:

- 1) Ondorengo elkarteei taulan azaltzen diren diru laguntzak ematea, 2014ko urtarrilaren 30eko GAOn argitaratutako irabazi asmorik gabeko entitate edo elkarteei laguntza emateko 2014 urteko diru laguntzen 8. eranskinean, Euskara Zerbitzuaren deialdiari, auzoetako plan integralei, dagozkienak.

| | Elkartea | IFK | Auzoa-Proiektua | Lortutako puntuak | Diru-kopurua |
|---|-------------------------|-----------|--------------------|-------------------|--------------|
| 1 | Intxaurren Plazara goaz | G20715371 | Intxaurren | 130 | 3.039,79 € |
| 2 | Loiolako Erriberatako | G20403408 | Loiolako Erriberak | 118 | 1.870,64 € |

Euskara Zerbitzua

Konstituzio plaza 2 - Tel. 943483750 - Faxa 943483765 - udala_euskara@donostia.org - www.euskaraz.net - www.donostia.org
20003 Donostia

| | | | | | |
|---|--------------------------------------|-----------|---------------|-----|-----------------|
| | auzo elkarteak | | | | |
| 3 | Ikasbide | G20094884 | Amara Berri | 107 | 2.568,24 € |
| 4 | Bizarrain | G20754834 | Altza | 123 | 5.423,1 € |
| 5 | Parte Zaharrear Bizi | G75064451 | Parte Zaharra | 138 | 5.884,73 € |
| 6 | Eltzegor | G20900205 | Bidebieta | 118 | 2.026,53 € |
| 7 | Añorga kultur eta kirol elkarteak | G20189601 | Añorga | 138 | 2.207,17 € |
| 8 | Sarroeta auzo elkarteak | G20403408 | Martutene | 113 | 1.371,80 € |
| | GUZTIRA | | | | 24.392 € |

- 2) Erabaki hau Udaleko Web gunean eta udal iragarki-oholean **argitaratzea**.
- 3) Finantza Zuzendaritzaren Diruzaintza Burutzak **onarpena eman diezaiola kopuru horiek ordaintzeari** diru laguntzak arautzeko oinarrietan jarritako eran. Hau da, diru laguntzaren %70 behin betiko emakida onartzen den unean bertan ordainduko da, arauzko izapideen arabera, eta gainontzeko %30a diruz lagundutako programaren edo jardueraren zuriketa egiterakoan. Zuriketa hau diru laguntzen deialdiaren 16. artikuluan jasotzen den dokumentuen bidez egin beharko da 2015eko martxoaren 31 baino lehen.
- 4) **Gastua (24.392 €)** 2014ko gastuen Aurrekontu Orokorreko Euskara Zerbitzuko 481.01 kontu sailari **egoztea**.

Donostian, 2014ko uztailaren 4an

KULTURAKO ETA EUSKARAKO ZINEGOTZI-ORDEZKARIA

Iz.: Naiara Sampedro

EUSKARA ZERBITZUAREN BURUA

Bera ez dagoenez,

Iz.: Edurne Otamendi Garmendia

EUSKARA ZERBITZUKO INSTRUKZIO EGILEA

Iz.: Mikel Zumarraga Luzuriaga



KONTABILIZATUA / CONTABILIZADO
Erreferentzia: / Referencia: 17486/93